




Testua: **Nerea Ariznabarreta**

Irudiak: **Maite Rosende**

Saila: Album irudidunak

Nabarmentzekoak: kontakizun errimatua, umorea, munstroen desfilea, beste beldurrezko ipuinen erreferentziak, adiskidetasuna gaixotasunean, irudi minimalistak.

Gaia: Gau Beltzara hurbiltzeko modu atsegin eta umoretsua.

Adin egokia: 4 urtetik aurrera.

Kartozko azala | 21 x 25 cm | 44 or. | Salneurria: 15,00 €

ISBN: 978-84-9172-393-6



*GAUR MAMUKI EZ DA ONGI ESNATU.
MUKIZ BETERIK, EZIN INOR IZUTU...
ETA, SUSTORIK GABE, EZIN GAU BELTZA OSPATU!*

*«NOLA SENDATU?», DABIL PENTSATU ETA PENTSATU.
SUSTOAK HAINBESTE MAITE DITU...*

Beldurrari buruzko album umoretsua dugu Mamuki. Gau Beltza da, eta mamuek sustoak eman behar dituzte, ingurumarian ikara eragin beharra daukate. Baina mamu txikia gaixorik dago eta hainbat pertsonaia beldurgarri saiaturik dira hura osatzen edo sendatzen: banpiroa, zontia... edo geureago ditugun Zakuzahar edo Otsoko, baina alfer-alferrik. Gaixoa! Zer egingo du Mamukik Gau Beltza ospatu ezinik...?

Etxeko agertoki minimalistan txakur jolastia ere saiaturik da Mamuki sendatzen, baina orduak joan, orduak etorri, munstroak joan, munstroak etorri, ez da konponbiderik inondik ere agertuko. Edo bai...

Apaindura gutxiko etxean osagai bakoitzak sinbolismo handia erakusten du, erlojuak eta ilargiak batik bat, txakurrarekin batera betiere. Baina istorio-misterioa arras aldatuko da, erlojuak argi adierazi bezala, bi orduren buruan munstroek eta piztiak elkar hartzen dutenean...

Narrazioa paralelismoetan eta hitz jokoetan eraikia dago, erritmoa eta errima erabiltzen ditu eta hurrei oso gertukoa egiten zaie; barrea eraginen du ustez beldurra nagusi den kontakizunean. Testua, finean, beldurrari buruzko gogoeta jostagarria bilakatuko da, gertukoa eta goxoa.

Bitxia da, baina erritmoa eta errima horietan ere dira ilustrazioen ezaugarriak, benetan dira samurrak eta maitagarriak, dibertigarriak eta ganberroak. Horregatik da bikaina Mamuki albuma, testuaren eta ilustrazioaren arteko uztarketa aparta delako, biek ere soilak eta sotilak diruditen arren. Irakurlearengan irribarrea eta konplizitatea pizten dute, eta orrialdeetan atzera egiteko gogo, lehen begiratuan ikusi ez ditugun xehetasunak bilatzeko, ludikotasuna eta adiskidetasuna aldarrikatzeko.

Nerea Ariznabarreta Izkue
(1981, Eibar)

Eibarren jaio eta haurtzaroko asteburuak aitaren baserrian igarotakoa. Han, istorioetarako eta antzerkirako zaletasunak piztu eta hauek garatuz joan da Gasteiz, Lisboa, Londres eta Berlin artean. Tartean, Musika eta Pianoko irakasle gradua bukatu eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zientzietan lizentziatu da. Ipuinak kontatzen, 2003an hasi eta geroztik konpainia ezberdinetan dihardu. Berea, NAITA produkzioak da.

Maite Rosende Gutierrez
(1991, Donostia)

Batxiler Artistikoa burutu ondoren, Bartzelonara joan zen pintura muraleko goi-mailako gradu bat egitera. Hainbat diziplina artistikotan trebatu da, baita diseinu grafikoa, argazkigintza eta bideo-edizioan ere. Gaur egun freelance gisa egiten du lan ikus-entzunezko piezen, kartelen eta ilustrazioen enkarguak eginez, bere lan pertsonalak albo batera utzi gabe.

